

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Bigarren maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Argitalpena: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimaketa: Gráficas ONA

L.G.: NA 1251-2003

ISBN.: 84-235-2384-5

Ari gara

EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaizela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikulua beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A eredu 1. mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikulua zerbaite on badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta, batetik, eta gela-ko ikasle kopurua, bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egitea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtsu gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkieteen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar-garrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guztia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu, ari eta arituko diren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

3. Hezkuntza eta hizkuntza	7
2. Pertsona: arropa eta oinetakoak.....	35

Arbasoengandik jasotako hizkuntzak
beste ezerk baino askoz ere denbo-
ra luzeago irauten digu bihotzean.
Pentsamenduak askatu, burua ireki
eta bizitza gozatu egiten digu.

Sami hizkuntzan idatzitako poema (Suedia)



**Ikasiz ikasten
eta
mintzatzen**

**4
Hezkuntza eta
hizkuntzak**

1.
Jarduera

Oraingoan neu notak jartzen




Mintzamenena

Zure ikasgai guztiei nota jarri behar diezu.

Bakarka nota jarri eta gero, 1etik 10era, elkartu hironaka eta elkarri nota hori jartzearen zergatia azaldu:

Erraza edo zaila egiten zaizun ikasgai hori, eroso sentitzen zaren ordu horretan, txikitatik gustatu zaizun...



IKASGAIA	NOTA
Natur Zientziak	
Gizarte Zientziak	
Geografia eta Historia	
Gorputz Heziketa	
Gaztelania	
Euskara	
Literatura	
Matematika	
Musika	
Teknologia	
Erligioa/Etika	

N

Hau da hau!

NOZIOAK

Harrituta dagoenaren egoera eta gogo-jarrera


HARRIDURAZKO ESALDIez adieraz daiteke.


Hurrengo ESALDIAK eta esaldi hauei dagozkien IRUDIAK parekatuz, harridurazko esaldiak nola eratzen diren ikasiko duzu:

Esaldiak

1. Bai jende gutxi joan dela klasera abenduaren 1ean
2. Larri dabil Iker matematika azterketan!
3. Hori estiloa hori Josunerena futboleant!
4. Hau jendetza Mariaren hitzaldiak erakarri duena!
5. Liburutegi ederra gure institutukoa!
6. Horiek bai pozik dabilzala haurtzaindegian!
7. Ze nolako itxura duten irakasle horiek!
8. Hura ordenagailua Enekorri oparitu diotena!

Irudiak:





Zenbakiak eta letrak jarritz parekatu!

ESALDIAK

--	--	--	--	--	--	--	--	--

IRUDIAK

--	--	--	--	--	--	--	--	--

2.

Jarduera

Esaera zaharrak



Irakurmena



Mintzamina

Jarraian, hirunaka jarrita, ikasle bakoitzak bere fitxako esaera zaharrak eta haien azalpenak irakurriko ditu. Gero, txandaka, bakoitzak bereak beste biei azalduko dizkie.

Lehenengo A ikasleak bere lehenengo esaera azalduko du, gero B-k bere lehenengoa eta C-k berea. Horrela esaera guztiak azaldu eta aurkeztu arte.

Hiruron artean hurrengo esaera zahar hauek noiz erabiltzen diren ikasiko duzue, **eta buruz ikasi, aurrerantzean erabili ahal izateko!:**

Noiz erabiltzen dira?

Esaera zaharrak

A ze pareka karakola eta barea

Txoriak ere duen hainbat odol ematen du

Gezurra esan nuen Getarian eta ni baino lehenago zen atarian

Bost xentimoko pupua eta hamar zentimoko trapua

Lan lasterra lan alperra

Jaten duten santuekin ez dago fidatzerik

Bakoitzak bere astoari egiten dio arre

Bat eman eta bi hartu

Astoak mandoari belarri luze

Esaera Zaharrak eta Txiste Berriak. J. Ormazabal

Irakurri eta azaldu

A
Ikaslea

1

Jasone asko saiatzen da bere ikasketetan. Baina hala ere, bi sus-pentso eraman ditu etxera ekainean. Amari notak erakusterakoan, Jasone negarrez hasi da. Orduan, amak, honela hitz egin dio alabari:

- Saiatu zaren baino gehiago ez dago saiatzerik. Ahal duzuna egin duzu. Denok daukagu geure neurria eta neurri hori betetzen badugu, ez daukagu zertan kezkatu. Aspaldi erakutsi zidan amona zenak esaera hau:

Txoriak ere duen hainbat odol ematen du

2

Astelehen goiza zen. Patxik, matematikako azterketaren beldurrez, goiz hartan eskolatik piper egitea erabaki zuen. Baita egin ere.

Arratsaldean, eskolara joan zenean, goizean non egon zen galdetu zion irakasleak. Eta Patxik amarekin dentistarengana joan zela esan zion. Baina irakasleak Patxiren amari telefonoz deitu zion dentistaren kontu hura egia ala gezurra zen jakiteko. Honela, Patxi gizarajoa gezurretan harrapatu zuten. Semea etxera joaterako amak bazekien dena.

Eta honela bukatu zen amak Patxiri bota zion sermoia:

- Zuk ez al duzu entzun esaera hau?

Gezurra esan nuen Getarian eta ni baino lehenago zen atarian

3

Beste denak matematikako ariketak egiten ari diren bitartean, Imanol eta Eneko txiste kontatzen ari dira. Irakaslea konturatzen da eta esaten die:

A ze pareka karakola eta barea



Irakurri eta azaldu

B
Ikaslea

1

Ismaelek urratu txiki bat egin zuen behatzean eta hurrengo goizean eskua bendaturik eraman zuen ikastolara. Motiborik gabe kexatzen denaz esaten da:

Bost xentimoko pupua eta hamar xentimoko trapua

2

Lan bat azkar eta presaka egin eta irakasleari erakutsi ondoren ez al dizu honela inoiz esan?:

- Baina zer da hau? Ez dut ezer ere ulertzen. Egizu dena berriz eta gero etorri.

Begira zer dioen esaera zaharrak azkar eta presaka egindako lanei buruz:

Lan lasterra lan alperra

3

Bai, oso mutiko isila eta jatorra zen. Eskolan oso langilea, etxean oso leiala. Denek santutzat zeukaten. Igor zuen izena. Baina Igorrek ere bazekien isilean gaiztakeriak egiten. Egun batez, dirua lapurtzen harrapatu zuten herriko denda batean. Lagunek, irakasleek eta gurasoek ezin zuten sinetsi.

- Zer uste zenuten, ba? -esan zuen herriko zahar batek gertatutakoaren berri jakin zuenean. Aspaldi ikasi nuen esaera zahar hau:

Jaten duten santuekin ez dago fidatzerik



Irakurri eta azaldu

C
Ikaslea

1

Bakoitza geure arazoak konpontzen saiatzen gara: geure notak, geure dirua, geure etorkizuna... Besteen arazoez ez gara gehiegi kezkatzen. Geurea aurrera ateratzen bada, gustora!

Konparaketa baten bidez adierazten digu hau esaera honek:

**Bakoitzak bere
astoari egiten
dio arre**



2

Ikasleak galdetzen dio irakasleari azterketa garaian:

- Boligrafoa eskatu ahal diot Estanixi?
- Bai gizona, bai!

Ikasle hori joaten da Estanixengana, baina ez boligrafoa eskatzera bakarrik, ulertzen ez duen gauza galdetzera ere bai.

Zer gertatu da? Hurrengo esaldiak adierazten du gertatutakoa:

Bat eman eta bi hartu

3

Eneko mutiko borrokalaria da. Egunero ez bada, astero egiten du borrokaldiren bat eskolan. Gutxi behar du edozeini paparretik heltzeko. Mila aldiz entzun du gauzak borrokarik egin gabe konpondu behar direla. Baina alferrik.

Behin irakaslearengana joan eta esan zion:

- Jon haserretu egin da nirekin eta jo egin nau. Begira nolako txintxorra atera didan buruan.

Irakasleak orduan, "biok ere baduzue zuek elkarren antza" esateko esaera zahar honekin erantzuten dio:

Astoak mandoari belarri luze


3.

Txiste berriak

Jarduera



Irakurmena




Idazmena



Mintzamina


1) Lehenengo, taldeko ikasle bakoitzak tokatu zaizkion txisteak txandaka irakurri eta bere taldekoei kontatuko dizkie.

2) Gero, paper bat hartu eta ezaguna duen txiste bat idatziko du.



3) Bukatutakoan, idatzitako papera taldeko beste bati pasatuko dio, elkarren paperak trukatu eta ikasleak idatzitako txistea irakurri behar da.

4) Ikasle bakoitzak bestearen txistea ondo ulertu ondoren, talde txikiari kontatuko dio.



Irakurri eta kontatu

A
Ikaslea

1

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa:

- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?
- 208, jauna.
- Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak!

Baina gaur oliba hezur bat irentsi dut...




2

Irakasleak ikasleei:

- Orain idazlan bat egingo duzue. Hau da gaia: "Alferkeriaren ondorioak".

Handik ordubetera papera zuri-zuri, ezer idatzi gabe, entregatzen du Pitxuk.

- Zer da hau Pitxu? -galdetzen dio irakasleak.
- Horixe da alferkeriaren ondorioa -erantzuten dio Pitxuk oso lasai.



Irakurri eta kontatu

B Ikaslea


1

Irakasleak ikasle bat arbelera ateratzen du eta esaten dio:

- Ea nola marrazten duzun argazkiak ateratzeko makina bat.

Ikasleak kaxa bat marrazten du eta irakasleari begira geratzen da.

- Bukatu al duzu? - irakasleak.
- Bai.
- Nik ez dut hor argazkiak ateratzeko makinarik ikusten.
- Nola ikusiko duzu, ba? Barruan dago eta...



2

Irakasleak ikasleari:

- Zein da animaliarik produktiboena?
- Oiloa, jauna.
- Eta zergatik?

Hilda gero eta jaio baino lehen jan dezakegulako.



Irakurri eta kontatu

C
Ikaslea


1

Fisikako klasean:

- Atzo esplikatu nizuen beroak nola gauzak dilatatzen dituen. Ea, zeuk! Jar iezaguzu adibide bat.

Ikasleak horrela erantzun zuen:

- Baaa... udan egunak luzeagoak dira eta neguan laburragoak.



2

Irakasleak ikasleari:

- Zertan bereizten dira irla bat eta lehorreko lur mutur bat?
- Ez dakit.
- Ez dakizula? Ea, autoz joan ahal zara zure etxetik irla batera?
- Ez.
- Zergatik?
- Autorik ez daukadalako.



4.

Jarduera

Ikasketa bidaiak



Irakurmena



Mintzamina

Segidako testua bakarka irakurri eta ulertu ondoren, beheko galderak irakurri, erantzun eta hirunaka komentatu. Bukatutakoan talde txikietako iritziak talde osoan azaldu.

"Ikastetxean urte mordo bat igarota, D.B.H.ko 3. mailan batzuek eta gehienek 4. maila bukatu ondoren, astebeteko irteera egiten dute. Lehen gehiago egiten zen, orain gero eta gutxiago. Arrazoi desberdinak daude tartean ikasleek hainbeste maite duten irteerari uko egiteko. Baina benetako arrazoiak dira?"

Ikasleen bidaia horretan haserreak ere izaten dira. Ikastetxeak, kasu askotan, ez du bere gain hartu nahi bidaiaren erantzunkizuna. Ezbeharren bat gertatzen bada babesik gabe gelditzen direla diote ikastetxekoek. Horregatik, irakasleek atzera egiten dute bidaia antolatu eta laguntzeko orduan.

Bidaia honek alderdi onak ere baditu. Ikasturtearen hasieratik edo lehenago hasten dira planak egiten. Dirua batzea da lehenengo lana eta horretarako era askotako ekintzak egin behar izaten dituzte: zozketak, tortila saltzea, Gabonetan gozokiak, erakusketak eta beste zenbait ekintza mota. Ilusioa sortzen zaie eta ilusio hori gehitzen joaten da urtean zehar. Eguna iristen da eta zoramena gainezka!

Kili-Kili

- Ados al zaude artikuluan agertzen diren alderdi txarrekin?
- Benetan arazoak gertatzen direla uste duzu?
- Zein dira zure ustez ikasketa bidaia egitearen alde onak?

**ETA ZUEK,
ASMORIK
BAI?**



N

Nori idatziko diot?

NOZIOAK

Eskutitzak idazterakoan, beste batzuen artean, hurrengo formulak edo konbentzioak erabil ditzakezu:

IRAKURRI

Lagun artekoak

Hasierak

- Kaixo Mikel.
- Kaixo lagun/ adiskide/ polita.

Bukatzean

- Beno, hortaz...
- Beraz...
- Bukatzeko...

Bukatzeko agurrak

- Muxuak eta laister arte.
- Goraintziak/ Eskumuinak.
- Nire agurrik beroena.
- Zorionak eta urte askotarako.



Formalak

Hasierak

- Agur t'erdi.
- ... -t(z)eko idazten dizut.
- Zurean esaten duzunari erantzunez.
- Gutun honen bidez zera adierazi nahi dizut.

Bukatzean

- Zera esan behar nuen amaitu baino lehen...
- Azkenik zera esango nuke...
- Bukatzera noa...
- Gehiegi luzatu gabe.

Bukatzeko agurrak


- Zure erantzunaren zain, agur.
- Besterik gabe, agur.



5.

Zuzendariari idazten


Jarduera



Idazmena

Aurten zure ikastetxean ikasketa bidaia ez egitea erabaki da eta zu ez zaude ados. Zure ikastetxeko zuzendariari eskutitza idatzi behar diozu eta zure iritzia eman ikasketa bidaiaren alde onak azalduz.

Hartu orri bat eta bakarka idatzi eskutitza. Bukatutakoan, hironaka jarrita, irakurri elkarren eskutitzak eta erabilitako argudioak konparatu.



6.

Jarduera

Hizkuntzen Urte Europarra



Irakurmena

Han hemenka entzun da Hizkuntzen Urte Europarra izan dela 2001 urtea. Baina zer da zehazki urte hori? EBLULEk (Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoak) 40tik gora hizkuntza zenbatu ditu Europako Batasunean bakarrik eta eztabaida geroz eta biziagoa da.

Atzean utzi dugun mendeko aurrerapausoek heriotza ekarri diote hainbat hizkuntzari.


Europar hizkuntzekiko jarrera aldatu da. Garai bateko mesprezu eta errepresioen atzetik zaindu beharreko altxorra direla esaten dute hainbatek.



Mintzamina

Hirunaka jarrita, hiruron artean segidako mapan agertzen diren zenbait hizkuntzaz zerbait jakiten saiatuko zarete. Ikasle bakoitzak (A, B, eta C-k) bere fitxan agertzen dena irakurri, hizkuntzak ezagutu eta besteei ezagutaraziko dizkie.

Europako Batasuneko hizkuntza gutxituak



1. Aragoera
2. Aromunica
3. Asturiera
4. Friulera
5. Galiziera
6. Katalana
7. Korsikera
8. Ladinoa
9. Okzitaniera
10. Sardiniera
11. Frisiera
12. Sorabiera
13. Bretoaia
14. Galesa
15. Ezkoziako Gaelikoa
16. Irlandako Gaelikoa
17. Kornuallesera
18. Manxera
19. **Euskara**
20. Samia
21. Oil hizkerak
22. Scots
23. Behe-alemana
24. Frankoproventzala
25. Erromantxera

Irakurri eta ezagutarazi!

A
Ikaslea

Aragoera

Erromanikoa. Pirinioetan 30 milak hitz egiten du Aragoeraz. Ez da ofiziala, baina lege aurreproiektua dago. Hautazko ikasgaia.

Aromunioa

Erromanikoa.

Greziako mendi inguruetan mintzatua. Ezagupenik ez, 40 mila hiztun (?)

Asturiera/Leonera/Mirandesa

Erromanikoa. Asturiasen (450 mila), Leon iparrekialdean (Zamora barne, 30 milako estimazioa) eta Portugaleko Terra de Mirandan (15 mila), koofiziala da. Asturiaseko estatutuak babestu arren ez da ofiziala. Zerbitzu publikoetan, bide seinaleetan (Leonen gutxi), eta hezkuntzan urrats apalak. Telebistan gutxi, badago irrati librea eta "Les Noticias" astekaria. Mirandesez artikulua batzuk, eta astekari batek leoneraz albisteak.

Erromantxera

Erromanikoa. Suitzako Grischun-Graubunden kantonamenduko haran batzuetan 50 mila lagunek mintzatua (%42). 5 dialektu eta 80ko hamar-kadatik rumantsch hizkuntza batua. Ofizial mintzatzen den eremuan, paperak eta seinaleak erromantxez edo elebitan (alemanez). Eskolan lehen urteak erromantxez, gero elebitan. Irrati-telebista dago eta astean bost aldiz irteten den agerkaria.

Galiziera

Erromanikoa. Galizia erkidegoan eta mugakoetan (eztabaida asko) 2,5 milioi hiztun. Galizia erkidegoan koofiziala da, %94k ulertu eta %84k daki, erabilera urriagoa. Seinaleak elebitan. Hezkuntzan hasieran galegoz eta gero ikasgai batzuk (baina ez da beti betetzen).

Unibertsitatean apal. Telebista-irrati autonomikoak galegoz. Mila liburutik gora urtean, eta antzerki eta kultur talde ugari. Leon eta Asturiasen 45 mila hiztun (%50), ez da ofiziala.

Irakurri eta ezagutarazi!

B
Ikaslea

Korsikera

Erromanikoa. Ez da ofiziala, baina jatorriz korsikarrak direnetatik (%70), %96k dakite eta %86k erabiltzen dute. Administrazioan tarteka erabiltzen dute, era informalean. Seinale asko daude. Hezkuntzan derrigorrezko ikasgai izateko asmoa. Unibertsitatean korsikera ikastaroa eta gau-eskolak ere badaude. TBn bi ordu astean, irrati bat korsikeraz. Tarteka artikulua, liburu batzuk eta antzezlanak.

Okzitanera

Erromanikoa. Frantzia hegoaldeko 31 departamentuetan, Italiako Alpeetako 14 haranetan, hegoaldeko herri batean eta Kataluniako Aran ibarrean mintzatua. Aranen bakarrik ofizial (6.000 hiztun), Italian 50 mila, eta Frantzian 13 milioien erdiak ulertu eta %28k daki. Frantziako TBn 40 minutu astean, Kataluniako programa bat, irratian minutu batzuk eta *La Setmana* astekaria. Frantses eta italierazko egunkariak batzuetan artikulua eta egunkari katalan batek gehigarria astero.

Frisiera

Germanikoa. Mendebal frisia, 450 mila hiztun Herbeheretako Frislan probintzian eta 3.000 Groningenen. Derrigorrezko ikasgaia baina frisia hutsezko eskola gutxi. Administrazioan erabil daiteke baina erantzuna nederlanderaz, seinaleak udalaren arabera. TBn programa bat astero estatu osorako, irratia badago; prentsan artikulua. Urtean mila liburu. Antzezlan, museo eta kultur gune ugari dago.

Ipar frisia 8.000k mintzatua. Babestua baina ez da ofiziala. Seinale batzuk eta udaletan mintzatzen da batzuetan, baina goi alemanez idatzi. Mila ikasle ordu bat edo bi astero ia eskola guztietan. Kielgo unibertsitatean ikas daiteke. Irratian 3 minutu astean. TBn ez. Liburu gutxi eta antzezlan bat.

Sorabiera

Eslaviarra. Brandenburg eta Saxoniako landetan hitz egiten dute 60 milak. Gerra ostetik babestua egon arren, presentzia gutxitu egin da Batasunetik. Administrazioan erabil daiteke. TBn 30 minutu hilean, 26 astean irratian, egunkaria eta astekaria.

Irakurri eta ezagutarazi!

C
Ikaslea

Bretoia

Zeltikoa. Bretania mendebaldean iraun du. 450 milak ulertu eta 300 milak mintzatua. Ez da ofiziala, udal batzuen administrazioan eta seinaleetan dago. Bi maila ikasle eskola elebidunetan eta ikasgai 12 milak daukate. Brest eta Roazhongo unibertsitateak. TB-irradi publikoek 90 minutu eta 30 ordu astero. Zenbait aldizkari, egunkaririk ez. 30 liburu urtean eta antzerki taldeak (bat profesionala).

Euskara

Ez-indoeuroparra. Euskal Herrian mintzatua, Frantzia eta Espainia estatuetan (azken honetan erkidego autonomo bi). 600 mila hiztun. Koofiziala Euskal Elkarte Autonomoan, Nafarroako eremu euskaldunetan eta onarpen mugatua eremu elebidunetan. Euskarazko irakaskuntza gorantz, EAEen ikasgai derrigorrezkoa da, Nafarroan eta Iparraldean ez. EH ia osora heltzen diren TB, irradi (publikoak) eta egunkariak gain, herri prentsa ere badago, eta aldizkari tematiko eta orokorrak. 1.100 liburu inguru.

Samia

Ez-indoeuroparra. Finlandian 3.000 eta Suedian 15-20.000 daude (ez dute elkar ulertzen). Babes handiena Norvegian dago (50.000). Errusian 2.000. Sami Parlamentuek babesten dute, seinaleetan eta administrazioan dago (Suedian gutxiago). Norvegiarekin hirurek elkarrekin programak egiten dituzte hamabi orduz astean. Sami Radiok ordu batzuk eta estatu guztietako Batzorde Samiaren babesean liburu eta aldizkariak argitaratzen dituzte.

Manxera

Zeltikoa. Man Uhartea (Isle of Man) Erresuma Batuan dago. Ama-hizkuntza manxera zuen azken hiztuna 1974an hil zen, baina 200ek zekiten ordurako. Gaur 600dik gora, haur eskola zabaldu dute, irratian programa dago, eta seinaleak gero eta gehiago.

7.

Euskara zaila dela?

Jarduera



Irakurmena



Mintzamina

Komikia irakurri, ulertu eta hurrengo galderari erantzun. Gero, taldean jarrita, gauza bera erantzun duzuen konprobatu.

- Zer egin dio Jilda ahizpak oihartzunari irabazteko?
- Zergatik ezin du oihartzunak hitza errepikatu?
- Ados zaude?



8.

Euskal Herritik

Jarduera



Entzumena

Irakasleak jarriko dizun bideoa entzun-ikusi, ulertu eta saiatu jarraian dituzun galderari erantzuten. Erantzunak jasota, hironaka jarri eta konprobatu hirurok gauza bera ulertu duzuen. Bukatutakoan, irakasleak erantzun zuzenen berri emango dizue.

GALDERAK

1. Erdi Aroko gaietan jakituna den Roger Collins Britaniarrak dio, euskal hizkuntzaren berezitasuna hain handia izanik, orain arte ezin izan dela sailkatu. Zer gehiago dio Collinsek?

2. Jan Michel Beraxagarrek, Zuberotar poetak, ze izen eman dio euskarari?

3. Noiz izan dezake jatorria euskarak?

4. Noiz dio Caro Barojak, euskara galdu zutela Tafallatik Iruñerainoko herri guztiek?

5. Zein izan da mendeetan zehar hizkuntza transmititzeko bidea?

6. Zein da desagertu den euskalkia?

9.

Jarduera

El aita es baldarro con la mandarra



Irakurmena



Mintzamena

Bistan dago Nafarroako eguneroko gazteleran, euskaratik hartutako hitz ugari oraindik bizi-rik daudela. Honek euskara oso zabaldua eta erabilera handiko hizkuntza zela adierazten digu.

XIX. mendean Nafarroako Erdialdeak euskara hil zorian ikusi zuen eta XX. mendean Mendialdeko zonalde batzuek euskararen erbesteratzea ikusi dute.

Baina argi dago euskara Nafarroa gehienez hitz egin dela, hona hemen diogunaren froga.

"A decir verdad, el hombre era zacarro. Vivía en una chabola que la tenía siempre de zaborra hasta arriba. ¡Que ciquiña! La mandarra siempre llena de grasa del cherricume. Eso sí; siempre estaba preparado para la farra. Se juntaban en el choco todos los mutilzarras y allí, a veces, comer y todo hacían. Luego unas churrutadas de pacharán y medio piripis salían zuku-zuku que igual se caían encima de los axunes o dentro del asca. Lo peor si eran de mal beber entonces cuatro zartacos y luego de morro a casa".

Ze berri aldizkaria



Zein dira euskarazko hitzak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Ezagutzen dituzu beste batzuk?

Taldeka jarri, konparatu elkarren zerrendak eta saiatu hiruron artean beste batzuk zerrendatzen. Bukatutakoan, talde osoari aurkeztu talde txikietan ateratakoa.

Zergatik ez duzue etxean galdetzen ea horrelako hitzak ezagutzen dituzten?

10.

Jarduera



Idazmena

Ez du ezertarako balio

Ia ezertarako balio ez duen tresna asmatzen baduzue, Aizu! aldizkariak asmatutako **“ia ezertarako balio ez duten tresnak”** lehiaketan parte har dezakezue. Lehiaketan parte hartu nahi baduzue, idatzi eskutitza Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolako Euskara Departamentura.

Zer egin behar da?

Hirunaka, ia ezertarako balio ez duen tresna asmatu eta behean dituzuen arauak betez idatziz deskribatuko duzue. Zertarako erabil daitekeen idatzi behar duzue. Ezertarako balio ez duten tresnei **“txindogu”** deitzen diete.

Bukatutakoan talde txiki bakoitzak bere asmakizuna talde osoari aurkeztu eta gero, denon artean bat aukeratu eta behean agertzen den helbidera bidal dezakezue.

Gurina tutua

ADIBIDEA

“Hemen dugu ezpainetako margoa eta teknologiak ekarri digun azken asmakizuna: gurina tutua. Gaur egungo bizimodu azkarrak presaz gosaltzera behartzen gaitu, baina eguna behar bezala hasteko eta bapo gosaltzeko tostadak jatea bezalakorik ez dago. Gure ohituretan errotutako elikagai hau hartzen jarraitzeko modua asmatu dugu. Tostada erre eta gurina berehala zabaltzeko tramankulua dakarkizugu. Honetaz baliatuta, gainera, ez duzu labanarik garbitu beharko. Arazo bakarra dauka: hozkailuan sartuz gero, ateratzean kontuz ibili beharko duzu; izan ere, gurina gogorregi dagoenez tostada apurtuko duzu eta zatika jan beharko duzu. Bestelako erabilera mordoa ere badu gure asmakizunak eta bizitza erraztuko dizu inolako zalantza barik. Tartak egiteko moldeak errazago igurtziko dituzu, eta behin barrukoa bukatuta gurina pote normala hartu, apur bat berotu, eta koilara bat erabiliz tutua berriro bete ahal izango duzu erabiltzeko moduan uzteko. Primerako erreminta duzu gurina tutua. Marlon Brandok estimatuko zuen, duda barik, Azken Tangoa Parisen eszena famatua behin eta berriro filmatu behar izan zuenean.”

Aizu! aldizkaria




Txapelketan parte hartzeko arauak:

1. Txindogua ia ezin izango da erabili.
2. Aurretik beste inon ikusi gabea izan behar du.
3. Alferrrikako gauza izateko askatasun osoa du.
4. Eguneroko gauzeekin egin beharra dago.
5. Ezin izango da negoziarik egin berarekin.
6. Edonork erabiltzeko modukoa izango da.

HELBIDEA:

Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolako
Euskara Departamentua
Taxoareko Errepidea, z/g
31006 Iruñea



Arian-arian, edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hiru-naka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**


Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

5

Pertsona: arropa eta oinetakoak



Ongi ematen dit?

1.


Jarduera

Soinekoak, galtzak...



Mintzamina

- Arropari garrantzia ematen diozu?
- Moda gustatzen zaizu? Eta segitzen duzu?
- Markako arropak markarik ez dutenak baino garestiagoak dira. Baina hobeak ere bai?
- Merkealdietan erostea gustatzen zaizu?



2.

Jarduera

Zertan laguntzen ahal dizut?

Entzun arretaz!




Entzumena

Ondorengo elkarrizketak denda batzuetan gertatzen dira. Esan zein denda diren.

A Zer denda dira? Jarri elkarrizketaren zenbakia




elkarrizketa




elkarrizketa



elkarrizketa



elkarrizketa



elkarrizketa

Zertan oinarritzen zara erantzun hauek emateko?

1. elkarrizketa	2. elkarrizketa	3. elkarrizketa	4. elkarrizketa

B Bezeroak zertara joan dira?

Markatu X batez erantzun zuzena

1. elkarrizketa	a) b) c) d)	<input type="checkbox"/>	Lehen erosi duen jantzia aldatzera. Enkargatuta zuen jantzia erostera. Eskaparatean ikusia zuen arropa erostera. Ordaindu duen dirua berreskuratuzera.
2. elkarrizketa	a) b) c) d)	<input type="checkbox"/>	Pentsatua zuen jantzia erostera. Erosi duen jantzia aldatzera. Eskaparatean ikusia zuen jantzia erostera. Ordaindu duen dirua berreskuratuzera.
3. elkarrizketa	a) b) c) d)	<input type="checkbox"/>	Bere aitaz hitz egitera. Dendariari bisita egitera, besterik gabe. Bi kilo galdu dituela kontatzera. Dendariak gorde dion jantzia erostera.
4. elkarrizketa	a) b) c) d)	<input type="checkbox"/>	Dendariak gorde zizkion zapatak erostera. Zapata batzuk begiratzera. Dendariari bisita egitera. Erosi zituen zapatak aldatzera.

N.a

1. elkarrizketa urratsez urrats

NOZIOAK

Erreparatu erregistroari


– Gaztelerak badu errespetuzko trataera (*de usted*), oro har adineko jendearekin hitz egiteko erabiltzen dena. *De usted* hitz egiten dugunean, aditza hirugarren pertsonan jartzen dugu:

- ¿Qué tal **está** usted?
- ¿**Quiere** que le ayude?
- ¿Se **siente** bien?

– Euskaraz errespetuzko trataera ere **bigarren** pertsonarekin egiten da.
Zer moduz **zaude**?
Laguntzea nahi **duzu**?
Ongi al **zaude**?

A

- Dendariak eta bezeroak elkar ezagutzen dute?
- Eta jarrera? Zer jarrera hartzen du bezeroak? Eta dendariak?



Bete ondoko koadroa x batez markatuz

	Erregistroa		Jarrera	
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra
Dendaria				
Bezeroa				

Zertan oinarritzen zara?

Erregistroa	Jarrera

NOZIOAK

B

- Dendan ez dute bezeroak nahi duen jertsea, baina dendaria saiatu da beste jertse bat saltzen. Bezeroak, ordea, lehengoa nahi du, ez orain dendariak saldu nahi diona.

Ohar zaitetz nola egin dion uko dendariaren eskaintzari:

Azalpena


"Bai, politak dira, baina

nik begiz jota nuena gehiago gustatzen zitzaidan".

- **Proposamen edo eskaintza bati uko egiteko** modu asko daude. Batzuk zakarragoak, beste batzuk goxoagoak.

Sailkatu ondokoak!

1. Nik hori erosi? Ezta pentsatu ere!
2. Ez, eskerrik asko, ez da pentsatuta nuena.
3. Bai, politak dira, baina nik begiz jota nuena gehiago gustatzen zitzaidan.
4. Ez, ez, inola ere ez. Ez da neure gustukoa eta!
5. Hori polita? Bai zera!
6. Nik hori erosi? Zoratuta nagoela uste duzu, ala?



Goxoagoak


Zakarragoak

N.b

2. elkarrizketa urratsez urrats

NOZIOAK


A Bete ondoko koadroa erregistroari eta jarrerari erreparatuz.



	Erregistroa		Jarrera		
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra	Haserre
Dendaria					
Bezeroa					

Zertan oinarritzen zara?

Erregistroa	Jarrera



B

1. Dendan bezeroaren neurriko alkandorarik ez dagonez, haserretu egin da. Bilatu elkarrizketan **haserrea** adierazten duten esaldiak.

NOZIOAK




2. Askotan barkamena eskatzen denean, azalpen bat ematen da, **baina** juntagai-luaren bidez. Dendariak nola eskatu dio **barkamena** bezeroari?

N.c

3. elkarrizketa urratsez urrats

NOZIOAK

A Bete ondoko koadroa erregistroari eta jarrerari erreparatuz.



	Erregistroa		Jarrera	
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra
Dendaria				
Bezeroa				

Zertan oinarritzen zara?



Jarrera
Erregistroa

B

NOZIOAK

- Bezeroak gona jantzi du eta, ispiluaren aurrean dagoela, dendariak hauxe esan dio gona horrekin zer moduz dagoen adierazteko:

“Oso ongi EMATEN dizu gona horrek”

Argi dago dendariak gona horrekin ondo ikusten duela esan nahi izan diola.

- Nola esango zenioke zuk bezeroari gona horrekin ez dagoela ongi? Eta oso gaizki dagoela?




N.d

4. elkarrizketa urratsez urrats

NOZIOAK

A Bete ondoko koadroa erregistroari eta jarrerari erreparatuz.



	Erregistroa		Jarrera	
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra
Dendaria				
Bezeroa				

Zertan oinarritzen zara?

Erregistroa	Jarrera



B

NOZIOAK

Dendariak bezeroaren neurriko oinetakoak ateratzeko hauxe galdetu dio:

“Zein zenbaki erabiltzen duzu?”

eta bezeroak hauxe erantzun dio:

“Hogeita hamazazpiA, baina estu samarrak badira, hogeita hemezortziA”.

1

Dendariak euskarririk gabeko oinetakoak atera dizkionean, **harridura** azaldu du.

Nola adierazi du?

2

Eta **ezezko borobila** eman dio dendariaren proposamenari. Nola?

Bilatu elkarrizketan?



3.

Jarduera

Gogoan hartu!

Entzun dituzun elkarrizketetan zenbait hitz berri agertu dira. Ea marrazkiekin parekatzen dituzun.




Lexikoa


1. **Bezeroa** eta **dendaria** dira istorio honetako protagonistak.

2. **Lepo** pikoduna.

3. Ba, ez, jertseak **agortuak** daude.



4. Bai, politak dira, baina nik **begiz jota** nuena gehiago gustatzen zitzaidan.



5. **Kotoizko** alkandora bat nahi nuke.

6. **Lisoa,**

7. **marraduna** ala




8. **koadroduna?**







9. Alkandora **koloretsuak**,


10. **estanpatuak**, moda-moda-koak balira, tira...



11. Zein, artilezkoa? **Tanto / mota** urdinak dituena eta belauen pareraino ailegutzen dena?



12. Ederki, inporta ez bazaizu, txartelarekin ordainduko dizut, ez baitut **eskura** pagatzeko dirurik.



N

Laburbil dezagun

NOZIOAK

1. Hasierako agurra

Elkarrizketa hauetan agurtzeko era batzuk entzun dituzu: pertsona ezezagunen artean (formala) eta ezagunen (informala) artean.

1. elkarrizketa

- Arratsalde on!
- Baita zuri ere!

2. elkarrizketa

- Egun on!
- Egun on!

3. elkarrizketa

- Kaixo, Maribel!
- Ene! Kaixo, aspaldiko! Zer zabilta?
- Beno, betiko martxan.

2. Eskatzeko modua

Denda batean sartu eta gero, normalean dendaria hurbiltzen da bezeroarengana hauxe esanez:

- Zertan laguntzen (lagundu) ahal dizut?
- Zer nahi zenuen / duzu?


Bezeroaren erantzuna era askotakoa izan daiteke:

- Kotoizko alkandora bat nahi nuke.
- Zapata batzuk nahi nituzke.
- Azalpena (Lehenagoan jertse bat ikusi nuen eskaparatean lepoan marra zuri bat zuena).



3. Dendan dutena zure gustukoa ez bada,

– beste egun batean joan zaitezke ea orduan gustukorik aurkitzen duzun:



- Datorren astean
 - Bihar
 - Etzi
 - Bi aste barru (...)
- pasatuko naiz /
etorriko naiz.

– ezer erosi gabe joan zaitezke:

- Etxean hobeto pentsatuko dut.
- Ez da nahi nuena. Beste denda batean begiratuko dut.

4. Dendan dutena zure gustukoa bada,

– erosten ahal duzu

- Hartu egingo du / Erosi egingo dut.
Zenbat balio du?

5. Bukaerako agurra

Hasierako agurrean bezala, bukaerakoan ere formalak eta informalak daude.

1. elkarrizketa

- Eskerrik asko, agur.
- Zuri, agur, bai.

- Agur, gazte.
- Agur.

4. elkarrizketa

3. elkarrizketa

- Beno, Maribel, beste bat arte.
- Agur, bai, ondo izan.

4.

Jarduera

Goazen dendaz denda



Aurreko jardueretan ikasi duguna (agurrak, eskatzeko modua, erregistroa, jarrerak...) praktikan jartzeko, jarri binaka edo hirunaka eta asmatu elkarrizketa bat lagun talde baten eta dendariaren artean, ondoko egoera kontuan hartuta.

Mintzamina

Egoera

Zuek lagun talde bat zarete. Askok gustatzen zaizue dendaz denda ibiltzea, baina gehienetan deus ere erosi gabe ateratzen zarete dendatik; hori bai, dendako arropa guztia apalategietatik atera eta dena lardaskaturik utzi ondoren.



5.

Duda-mudatan

Jarduera




Entzumena

Lehenengo entzungai honetan Ana eta Imanolen arteko elkarriketa adituko duzu.

Zapatadenda bateko eskaparatearen aurrean daude, Anak oinetakoak erosi nahi ditu eta.

Lehenengo entzungaia

Entzungaia aditu eta gero, hurrengo orrialdean dituzun oinetakoak jarriko zenituzke eskaparatean behar den bezala?



Ana duda-mudatan ibili da oinetakoekin. Azkenean ematen du zirt edo zart egin duela.

Bigarren entzungaia

. Zein erosi du?

1



60 €

2



32 €

4



98 €

5



35,50 €

3



38,90 €

6



42 €

6.

Jarduera

Jantzi, erantzi



Irakurmena



Lexikoa

Lurralde batzuetako biztanleek, Afrikako zenbait herritakoek adibidez, ez dute arroparik jantzen eta biluzik egoten dira. Mendebaldeko gure gizarte honetan, berriz, arropa erabiltzen dugu. Beharko! Bestela, larrugorritan gaudela, nola egin aurre gure negu hotzari!

Irakurri arreta handiz ondoko deskribapenak eta saiatu esaldiok marrazkiekin ezkontzen. Gero, gurutzegrama osatu.

1. Neguan edo hotz handia egiten duenean, gainerako arropen gainean jartzen den jantzi luze eta lodia.
2. Emakumezkoek bularrei eusteko erabiltzen duten jantzia.
3. Gizonezkoen jantzia da. Gorputza, besoak eta gehienetan lepoa estaltzen du eta aurrealdean botoiak ditu.
4. Gorputza gerritik behera eta bi zangoak banaka estaltzen dituen jantzia. Motzak ere badaude.
5. Gizonezkoen barneko jantzia, galtzen azpitik erabiltzen dena.
6. Batez ere emakumezkoek erabiltzen duten gerritik beherako jantzia, moda eta erabileraren arabera forma eta luzera aldakorra dituena.
7. Zangoaren behealdea eta oina estaltzen dituen jantzia. Binaka erabiltzen dira.
8. Gorputzean zuzenean larruazal gainean jartzen den jantzia. Normalean mahuka motzak ditu, leporik ez du eta aurreko aldean zein atzekoan marrazkiak, letrak... izan ditzake. Bero egiten duenean, gainean beste ezer jantzi gabe erabil daiteke.
9. Puntuzko oihalez egindako jantzia, gorputza lepotik gerriraino estaltzen duena. Oro har bi motakoak daude: lepo itxia eta pikoduna dutenak.
10. Euria egiten duenean eta gainerako arropen gainean jartzen den jantzi arina. Oihala berezi samarra da, ura pasatzen uzten ez duelako.
11. Emakumezkoen jantzia da, oin eta hanka osoa izterren goialderaino estaltzen dituena.
12. Alkandoraren antzeko jantzia, lepoduna, bi edo hiru botoi dituena eta mahuka motzak zein luzeak dituena. Bero egiten duenean, gainean beste ezer jantzi gabe erabil daiteke.





Pertsona: arropa eta oinetakoak

13. Alkandora luzearen moduko jantzia, emakumeek lotarako erabiltzen dutena.
14. Jantziak gerrian lotzeko erabiltzen den apaingarria.
15. Oihalezko apaingarri luzea, alkandoraren lepoa inguratu eta aurrean korapilatuz jantzen dena.
16. Hotza edo euria egiten duenean, ohiko jantzien gainetik jantzen den jaka lodia, bereziki ilea duena.
17. Emakumezkoen barneko jantzia, gerritik izterren goialderaino estaltzen duena.
18. Alkandoraren gainean jantzen den jantzia. Galtzekin trajea osatzen du, baina bakarrik ere erabil daiteke.
19. Orkatilaraino heltzen den zola gogorreko oinetakoa. Binaka erabiltzen dira.
20. Emakumezkoen jantzia, alkandoraren antzekoa.
21. Lo egiteko erabiltzen den bi piezako jantzia.
22. Igeritarako edo parrillan bezala, ahoz gora eta ahoz behera (ahuspez), eguzkia hartzeko erabiltzen den jantzia.
23. Etxean erabiltzeko nahiz kirola egiteko oinetakoa.
24. Bereziki emakumeentzako jantzia. Pieza batekoa eta edozein luzera izan daitekeena.

HARLUXET hiztegi entziklopedikotik hartu eta moldatuak.



Pertsona: arropa eta oinetakoak



Letra buru-gorri hauek dira marrazkiek daramatzatenak

			W					B		R		P		
C										B				E
						L				E				
										R				
	X									O				
										K				
	Ñ									I				
	N									A				
S														
									F					
									O			K		
			M		T									
D		Z												
B	A													
U														
L													I	
A														
R								G						
R		J												
E														
T														
A		U												
K														
O														
A				H										

7.


Jarduera

Domino partida bat?



Lexikoa


Aurreko jardueretan ikusi duzun arroparen inguruko lexikoa honezkero ikasia duzu? Joku honen bitartez erreparatzeko aukera duzu. Baietz zuk irabazi!



8.

Jarduera

Maletak prest dituzu?



Idazmena

Bidaia egitea beti izaten da erakargarria: tokia aukeratu, hotela aldez aurretik hartu, zer ikusi behar den planifikatzea..., baina maletak egitea aspergarri samarra ere bada. Niri behintzat hala iruditzen zait.

Orain zuek binaka edo hirunaka zaudetela, bidaia bat egin nahi duzue, baina maleta ez duzue oraindik prestatu. Zer sartuko zenukete maletan hamabost eguneko bidaia egiteko?

Egin eramango zenituzketen jan-tzien deskribapen zehatza.

Adibidez:

- Nik bainujantzi estanpatua eramango nuke, belaunetaraino ailegatzeko dena eta aurreko aldean palmondo bat duena.
- Ba, nik galtza motzak, marroi argiak, esploratzaileek daramatzatzenen estilokoak.




Mintzamina



Bidaien helmugak

A

Zuek hegoamerikara joan nahi duzue, Venezuela, Peru aldera. Urte sasoi honetan bero handia egiten du, baina klima tropikala aurkituko duzueenez, kontuz! ia-ia egunero euri zaparrada handiak izaten dira eta.



B

Zuek Europako iparraldera, Norvegiara joan nahi duzue. Han urte sasoi honetan oso eguraldi txarra egiten du: hotz handia, euria, eta haizeak gogor jotzen du.



C

Zuek Australia aldera joan nahi duzue. Urte sasoi honetan bero handia egiten du. Klima lehorra da, beraz, ez du apenas euririk egiten.



D

Zuek Portugal aldera, Lisboara joan nahi duzue. Urte sasoi honetan hotza egiten du, baina Nafarroan baino gutxiago. Klima goxoagoa da. Baliteke tarteka euria egitea.



Gero eman gainerako taldekideei jantzien deskribapenen berri.

9.

Eragin buruari

Jarduera



Irakurmena



Mintzamena

Asmakizunak gustuko dituzu? Hala bada, hemen duzu bat.

Irakurri arretaz eta ea asmatzen duzun!

Zapata berriak

Arazoa:


Egun batean, bi ama eta bi alaba oinetakoak eroatera joan ziren. Zapata pare bana erosteko asmoa zuten. Hau da, bakoitzak zapata pare bat erosi nahi zuen. Dendara sartu, eta berehala aurkitu zituzten gogoko oinetakoak. Horiek erosi eta pozik itzuli ziren etxera, bakoitza bere zapata pare hartuta. Guztira hiru zapata pare erosi zituzten.

Galdera:

Nola da hori posible bi ama eta bi alaba zirela esan badugu?



Zabalik 155 zenbakia
Zirikituia 6



10.

Jarduera

Erosketak ez dira beti ongi ateratzen



Mintzamina

Hemen duzun ohiko egoera honen aurrean nola jokatuko zenuke?

Hartu bezeroaren papera edo dendariarena.

A ikaslea

Bezeroa

B ikaslea

Dendaria

Ebaluazioa:

- Ariketa ongi joan da?
- Helburua lortu duzue?
- Zer arazo somatu duzue:
 - gramatikalak?
 - erregistroari dagozkionak?
 - lexikoak?



Nahi baduzue, bukaeran antzez dezakezue

11.

Jarduera



Irakurmena

Nahi duenak eskuragarri ditu erreklamazio orriak


Zer moduz aurreko jarduera? Ados jarri al zarete bezero eta dendaria? Batzuetan bezeroa eta dendaria ados jartzea ez da erraza izaten. Honelakoetan bezeroak uste badu arrazoi duela, erreklamazio formala aurkez dezake.

Jakin nahi duzu nola?

ERREKLAMAZIO ORRIA

OHARRA: Inprimaki hau bete baino lehen, jarraibideak arretaz irakurri.

- A)** Administrazioak kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskuetan erreklamazio orri hau jartzen du, beraiek erreklamazio nahiz salaketak aurkeztu ahal izateko.
- B)** Kontsumitzaile edo erabiltzaileari eman baino lehen, erreklamazioan komertzioaren eta zerbitzua ematen duenaren datuak agertu behar dira.
- C)** Erreklamazioa erreklamazio orria jasotzen duen lekuan bertan bete du, eta ondoko datuak jarriko ditu:
- izen-abizenak
 - helbidea
 - nortasun agiria edo pasaportearen zenbakia
- Datu hauekin batera garbi azaldu behar du zer gertatu zen eta noiz.
- D)** Kontsumitzaile edo erabiltzaileak Administrazioari bidaltzen dion erreklamazio orriari behar diren frogak eta agiriak erantsiko dizkio (kontratua, informazio foiletoak, prezioen gaineko erreklamazioa bada faktura edo ordainagiria...), Administrazioak ahalik eta hobekien baloratu ahal izateko.
- E)** Erreklamazio orria bete ondoren, kontsumitzaile edo erabiltzaileak kopia horia denda edo zerbitzuko langile edo arduradunari emango dio, kopia berdea beretzat gordeko du eta erreklamazio orriaren jatorrizkoa (zuria) kontsumoko arloko erakunde hauetako batera bidaliko du:
- Kontsumitzailearen Zerbitzu edo Informaziorako Udal Bulegora
 - Nafarroako Kontsumo atalera
- Blas de la Serna 1, 4. solairua
31005 Iruña



HOJA DE RECLAMACION / ERREKLAMAZIO ORRIA

Los datos de este recuadro serán rellenados por el establecimiento o el prestador del servicio antes de su entrega al consumidor
Lauki honetako datuak establezimenduak edo zerbitzu emateak beteiko ditu kontsumitzaileari eman baino lehen.

"Iruzur" jantxidenda		AL 84310	
Nombre del centro o establecimiento / Zentro edo establezimenduaren izena		Nº Registro. / Nº I.A.E. / Erregistro zk. / JEZko zk.	
Plaza Berria, 4	Iruña	Nafarroa	948 121 110
Calle o Plaza y Nº. / Kalea edo Plaza eta zk.	C. P. y Localidad / PK. eta Herria	Provincia / Probintzia	Teléfono / Telefonoa
Víctor Goñi López		18146050 N	
Nombre o razón social del titular / Jabearen edo sozietatearen izena		N.I.F. o C.I.F. / I.F.Z. edo I.F.K.	
Ametza, 71 - 3. B	Iruña	Nafarroa	654 203 584
Calle o Plaza y Nº. / Kalea edo Plaza eta zk.	C. P. y Localidad / PK. eta Herria	Provincia / Probintzia	Teléfono / Telefonoa
El establecimiento está adherido al Sistema Arbitral de consumo / Establezimendua Kontsumoko Arbitraje Sistemara biltuta da <input checked="" type="checkbox"/> si / <input type="checkbox"/> no		Otros datos / Beste datu batzuk	

A rellenar por el reclamante / Erreklamatzailerak bete behar da

Fermín Azkona Izko		74498035 J	
Nombre y apellidos del reclamante / Erreklamatzaileraren izen-deiturak		D.N.I. o Pasaporte / NAfaren edo pasaportearen zk.	
Olite, 84-1. ezk.	Iruña	Nafarroa	349 456 723
Calle o Plaza y Nº. / Kalea edo Plaza eta zk.	C. P. y Localidad / PK. eta Herria	Provincia / Probintzia	Teléfono / Telefonoa

Motivo de la reclamación
Erreklamazioaren arrazoiak

Goian aipatutako dendak propaganda-foileto bat helarazi zidan etxera. Han ikusi nuen %20ko deskontua zuen jertse bat. Jertse hori erostera 2002ko abenduaren 28an joan nintzen denda horretara, baina dendariak esan zidan jertse horrek ez zuela deskonturik, foiletoan akatsa izan zela, baina haiek ez zutela inongo errurik.

Alegaciones del reclamado
Erreklamatzaileraren alegazioak

Solicita
eskatzen du

Propaganda-foiletoan agertzen den bezala, % 20ko deskontua egiteko


Documento que se adjunta (facturas, folletos, etc.) **Tiketa eta propaganda-foiletoa**
Eransten diren agiriak (fakturak, folletosak, etab.)

Solicito que esta reclamación sea resuelta a través del Sistema Arbitral de Consumo / Erreklamazio hau Kontsumoaren Arbitraje Sistemaren bidez erabakitzeko eskatzen dut **si** / **no**

Fecha de la reclamación
Erreklamazioaren data

2002ko abenduaren 28a

Firma del reclamante
Erreklamatzaileraren sinadura




Firma del reclamado
Erreklamatuaren sinadura



Amarillo: Ejemplar para el Establecimiento / Establezimenduentzako kopia

12.

Jarduera



Idazmena

Ez nago konforme, erreklamazioa aurkeztu nahi dut

Pentsatu egoera hauek zuri gertatu zaizkizula eta erreklamazioa aurkeztu nahi duzula. Modeloan agertzen den bezala egin. Irakasleak esango dizu zein hartu.

A

Aurrekoan jantzidenda batean zure neurriko jertsea erosi zenuen. Dendan garbigailuan lasai asko garbitzen ahal zenuela esan zizuten. Zuk honela egin duzu, baina jertsea jantzi eta gero, txiki geratu zaizula konturatu zara.



B

Lehengoan jantzidenda batean gona estanpatu bat erosi zenuen. Garbitzean ez zenuela inolako problemarik izango esan zizuten dendan, baina garbitu ondoren, kolore ia-ia osoa galdu duela ikusi duzu.

C

Zapatadenda batean oinetako batzuk erosi zenituen lehengo egunean. Astebete pasatu da eta oinetako horiek eman egin dute, eta ibiltzean ateratzen zaizkizu. Arazoa dendariari esan diozu eta bi pare galtzerdi jantzeko erantzun dizu, baina zu ez zara konforme geratu, jakina!



D



Neguko oinetako batzuk erosi dituzu. Euria goian behean ari zuen egun batean jantzi zenituen eta larrua hondatzeaz gainera, zapatetan ura sartu ere sartu zen.

13.

Jarduera



Irakurmena

Modaren atzaparretan

Baina jantziez ari garela, ezin dugu aipatu gabe utzi arroparekin lotura zuzena duen fenomeno bat: modarena. Gure gizartean modak berebiziko garrantzia du, bai inguruan mugiarazten duen jendearengatik (jostunak, modeloak, famosoak...) baita uzten duen diruarengatik ere.

Irakurri arretaz modari buruzko artikulu hau, **Zabalik** astekarian argitaratu zutena.

HIRI-MODA

GERO ETA BERDINAGO JANZTEN OMEN GARA

Kalea da hiri-modaren inspirazio iturria, eta kale hori gero eta berdinagoa omen da hiri guztietan. Uniformizazio eta berdintze prozesu beldurgarrian sartu garela diote adituek.

Modelo, izen handiko diseinatzaile eta hemengo zein hango pasarelen ondotik, moda kontzeptu berri bat sortu da: hiri-moda eta modan jarri da azken garaiotan. Hiri-moda *kalean* inspiratzen den moda da, eta telebista jendearen erreferentea. Fenomeno hau aztertzen dutenek homogeneotasun edo berdintasunerako joera beldurgarria dagoela diote: ia konturatu ere egin gabe gero eta berdinago janzten gara guztiok. XXI. mendeko gizakiak horixe erabaki omen du. Eta kiroletako arropa da egungo joera nagusia, bai oihaletan baita estiloan ere.

Berdintasun horren baitan, hala ere, bada oraindik hiri arteko hiri-modan ezberdintasunik. Uniformizazio bidean hiri bakoitzak bere estiloa duela ezin da ukatu. "Zara" denda kate ezagunak, esate baterako, ez du gauza bera eskaintzen hiri guztietan. Estatu ipa-

rraldean, adibidez, Levante aldean baino arropa ilunagoa saltzen du.

Hiri-tribuak ere gero eta gehiago dira

Hiri-tribuen hiri-modari erabat lotutako fenomeno da. Hiri-moda zenbat eta indartsuagoa izan, orduan eta hiri-tribu gehiago sortzen dira.

Hiri-tribuetako kideei ez zaie itxura tradizionala eramatea gustatzen, eta beren estetika propioa dute. Hiri-tribuetako kideentzat gainerako biztanleentzat adinako garrantzia du modak (beren modak, noski), hiri-tribuetako kideek beren identitatea adierazteko janzkera erabiltzen dutelako, bere moda berezi horren bitartez.

*Eider Jauregi
Zabalik, 2001eko azaroaren 10etik 11ra. Moldatua*

Testua ulertu duzu? Erantzun
X bat jarriz.



1. Hiri-moda kontzeptu hau

aspaldikoa da.

sortu berria da.

aspaldikoa da, baina orain modan jarri da.

moda pasareletan inspiratzen da.

kalean inspiratzen da.

EGIA

GEZURRA

2. Zein da hiri-moda kontzeptu honen ondorioa?

Pertsona bakoitzak janzteko estilo propioa duela.

Pertsona guztiok antzeko estiloa dugula.

Janzteko estiloa aukeratzean, telebistan ateratzen dena oinarritat hartzen dela.

EGIA

GEZURRA

3. Berdintasuna, homogeneousun eta uniformizaziorantz goaz:

baina oraindik ere ikusten dira arropa-estilo diferenteak hirietan.

beraz, ez dago ezberdintasunik eta iparraldeko hirietan janzten diren arropak janzten dira Levanten.

EGIA

GEZURRA

4. Hiri-modak dakarren beste fenomeno bat hiri-tribuena da. Hiri-tribuetako kideek

janzteko era ezberdina bilatzen dute.

janzteko itxura tradizionala gogoko dute.

beren moda berezi horretara jotzen dute beste tribuengandik desberdintzeko.

moda berezi horretara jotzen dute haien gurasoek hori nahi dutelako.

EGIA

GEZURRA

N

Diskurtso nozioak

NOZIOAK

Hemen dituzu eskura mintzatzeko lagungarri egingo zaizkizun baliabideak.

1. Jardunaren antolaketa

Gaiaren sarrera	- Hasteko...
Zuzenketa	- Zuzenketa eskatu <ul style="list-style-type: none"> • Zer? / Nola? / Barkatu? • Zer esan nahi duzu? Ez dizut ulertu.
	- Zuzenketa egin <ul style="list-style-type: none"> • Esan nahi dut... • Ez nuen hori esan nahi. Beste modu batera esango dut.
Zalantza adierazi	- Ez dakit nola esan... - Nola esango nuke?...
Bukatu	- Bukatzeko...

2. Komunikazioa mantendu eta kontrolatu

Errepikatu edo ahotsa modulatzeko eskatu	- Berriro, mesedez. - Errepikatuko duzu, mesedez? - Barkatu, polikiago/altuago, mesedez.
Mezua ulertu den galdetu	- Ulertu duzu? - Segitzen didazu?


14.

Jarduera

Nolako pertsona halako janzkera

Artikulua irakurri ondoren, zer pentsatzen duzue?

Askatu mingaina eta hitz egin!



Mintzatzeko gidoia

1. Artikuluan esaten da guztiok gero eta berdinago janzten garela. Egia da? Ikastetxeetan, auzoan... ikusten duzu hori?
2. Denda kate handiek (Zara, Adolfo Domínguez, Springfield...) inposatzen digute janzten dugun arropa-estiloa?
3. Arropa janzterako orduan, telebistan ateratzen diren pertsonengan erreparatzen duzu? Zuretzat estilo-eredu dira?
4. Artikuluan esaten da gaur egungo joera nagusia kiroletako arropa dela. Ados al zaude?
5. Arropa erosi behar duzunean, nork erosten du: amak edo zuk zeuk?
6. Gustatzen zaizu arropa erostea?
7. Hiri-tribuak aipatu ditu artikuluak. Zuk zenbat hiri-tribu ikusten duzu kalean?
8. Hiri-tribu hauetako batekin identifikatzen zara?
9. Etxean utziko lizukete ilea, adibidez, punki-estiloan orrazten? Zer esango lukete gurasoek, anai-arrebek...?



15.

Jarduera

Ospetsuen baremoa



Irakurmena



Mintzamina

Egunkarietan moda txokoak agertzea gero eta ohikoagoa da. Hemen zine-aktoreak nola jantzen diren ikusiko dugu, eta batez ere zein den hobekien jantzen dena eta zein okerren.

GORA




Monica eta Rachel, xume, baina xarma izpirik galdu gabe.

Monica eta Rachelek ongi aukeratzen dituzte jantziak. Bakoitzak bere estiloari eutsiz, inolako apaingarririk gabe. Rachelek eskote deigarria darama argazkian, hori bai. Eta Monicak aingerutxo dirudi. Erakargarria izan daitekeela argi utzi dute.



Gina Lollobrigida ere xume: torero traje distiratsua eta pelukoia

Izan zuenak ez du beti izandakoa mantentzen. Gazte garaian bestelako itxura izateaz gain, gustu hobea zuela dirudi. Liraintasunarekin batera, zer eta nola jantzi behar duen ahaztu zaiola ematen du. Titi parean transparentziak eramateko garaia aspaldi pasatu zitzaion.



BEHERA



Zabalik, 129 zenbakia.

GORA



Dotorezia eta sexy egotea ez dira elkarren aurkakoak

Oscar sariaren gala munduko pasarelarik onena eta ikusgarriena omen da. Aperitibo gisa, lehen modelitoak ikusi ahal izan genituen hautagaien afarian. Halle Berryk asmatu egin zuen berriz ere, eta guztiak lilurata utzi zituen bere dotorezia nahiz eskoteagatik.



Atarikoetara honela joaten bada, nola joango ote da Oscarretara?

Beti esan ohi da afari edo ekitaldi garrantzitsuren batera joan behar izanez gero, komenigarria dela lagun bati janzkerari buruzko aholkua eskatzea. Nor ote da Marisa Tomeiren aholkularia?



BEHERA

Zabalik, 121 zenbakia.

Irakurri duzuna oinarritzat hartuta, binaka edo hirunaka jarri eta zergatik ez duzu zerrenda bat osatzen irakasleen janzkera-estiloa aztertzeko? Jarri lehenengo postuan zure ustez hobekien janzten dena, eta azken postuan okerren.



Moda munduan ere badira bitxikeria nahiko! Dotore-dotore egoteko, zuk honelakorik jantziko zenuke?

ARROPA APAINA

GERO ETA GEHIAGO ERABILTZEN DA GUREAN

DOTORE BAINO DOTOREAGO JANTZITA

Etiketaz jantzita, agerraldi eta zeremonia ugaritan txutxu-mutxuetako pertsonaia ezagun eta ospetsuak ikusi izan ditugu. Gure artean ere gero eta apainago janzten omen gara edozein ospakizunetarako; batez ere ezkontzetarako.

Arropa dotorearen arloa ondo ezagutzen duten dendariak ez dute zalantzarik. Bilboko jostun eta dendari ezagun Javier de Juanak dioenez, “iruditzen zait Bizkai- an eta, batez ere, Bilbon Elkarte Autonomoko gainerako lurraldeetan baino tradizio handiagoa dagoela festa eta etiketa jantziak erabiltzeko. Bestalde, gizarte- biziaren ere handiagoa izan dugu Bilbon, Guggenheim museoa zabaldu zenetik; hala, gizarte-topalekuak areagotu egin dira. Ekimen horietara “glamour” izpi batez joatea ezinbestekoa da. Hala, bada, dotore jantzeko joera erabat zabaldu da gure artean azken urte hauetan. Norberaren irudia asko zaintzen da egungo gizartean; edozein ospakizun dela eta, jendea apain- apain janzten saiatzen da. Gaur egun, gainera, joera hori ez da batere elitista eta gisa horretako arropa polita eta dotorea erraz aurki daiteke bakoitzaren aurrekon- tuaren arabera”.

Etiketa-arropa

- **Esmokina:** Gaueko trajea. Jaka eta galtza beltzak (alboan xingola dutela), alkandora zuria eta eskumutur bikoizdu- na, gerriko eta tximeleta beltzak.
- **Txakea:** Eguneko ezkontza eta ospaki- zunetarako. Lebita beltza edo grisa,



galtza gris marradunak, txaleko beltza edo grisa, gorbata grisa, alkandora zuria, zapata beltzak.



- **Fraka:** Gaueko eta toki itxirako etiketa handiko jantzia. Lebita beltza (botoiak ez dira behin ere itxi behar), pikezko txaleko eta tximeleta zuriak, galtza beltzak (alboan xingolekin eta galtza- uha- lekin janzten dira).

Marisol Garmendia
Zabalik, 149 zenbakia. Moldatua

Pertsona: arropa eta oinetakoak

Artikuluak irakurri eta gero, asmatuko zenuke **esmokina**, **txakea** eta **frakaren** definizioak argazkiekin ezkontzen?

Marrazkiak dituzu lagungarri.




17.

Jarduera

Marrubi, banilla usaina duten oinetakoak



Irakurmena




Idazmena

Etiketa jantziarena bitxia iruditu bazaizu, orain datorren honek harri eta zur utziko zaitu, benetan.



Marrubi, banilla usaina duten oinetakoak aukeran

Izerdia dela eta, oinen usain txarrarekin kezkatua al zaude, emakumea? Bada, lasaitu zaitez. Ez da botika miraritsurik asmatu, asmatu diren oinetakoak nahiko harrigarriak diren arren: marrubi, koko, limoi eta banilla usaina duten oinetakoak, alajaina! Txankleta, mokasin eta sandalia berri horien gomazko zolari substantzia usaintsuak jarri dizkio Espainiako Patricia oinetako markak. Usaina oinetakoaren kolorearen arabera da: koko usaina zuriari dagokio, marrubi usaina arrosari, limoia horiari eta banilla kremari.




Zabalik, 138 zenbakia.

Nola laburtuko zenuke irakurri duzun berria?

18.

Jarduera



Idazmena


Moda-diseinatzailea banintz...

Inoiz pasatu al zaizu burutik moda-diseinatzailea izatea? Orain duzu zure balioa erakusteko aukera.

Binaka edo hirunaka jarrita, egoera jakin baterako arropa diseinatu behar duzu. Ikaskideen aurrean aurkeztu, eta gainerakoek, zuen deskribapena entzun eta gero, marrazkia egin behar dute. Bukatzeko, konprobatu egin dituzten marrazkiak zuen deskribapenarekin. Nahi baduzue, marrazkiak zintzilik jar ditzakezue gelako horman.

Adibidez: Udarako galtza motzak jantziko nituzke, beix kolorekoak eta poltsiko asko dituztenak, safari estilokoak.

Egin idatziz arropa horren diseinua



- A.** Eman dezagun ezkontza batera joatera gonbidatu zaituztela. Zer arropa jantziko zenuke udaberria dela kontuan hartuta?
- B.** Eman dezagun zure gogoko mutil / neskekin geratu zarela lehendabiziko aldiz. Badakizu lehenengo inpresioa oso inportantea dela eta liluraturik utzi nahi duzu. Zer arropa jantziko zenuke udazkena dela kontuan hartuta?
- C.** Udako oporrak Internet bidez ezagutu duzun lagun baten etxean pasatu behar dituzu. Laguna diru asko duen familia batekoa da eta Londresen bizi da, auzo aberats batean. Zer arropa jantziko zenuke?



Betidanik esan izan da dotore ibiltzeko sufritu egin behar dela. Bazenekien oinetako desegokiak erabiltzeak osasun arazoak ekar ditzakeela? Irakurri, bestela, ondoko artikulua hau.

OINEN OSASUNA

ARAZO ASKORI AURRE EGITEN AHAL ZAIE ZAINDUKO BAGENITU..., HOBE

Takoi altuak, punta zorrotzak, oinari ongi eusten ez dioten oinetakoak... behin eta berriro zigortzen ditugu oinak, moda edo gustu kontuak direla-eta egokiak ez diren oinetakoetan sartuz. Haiek zigor horren mendekua hartzen dutenean etortzen dira, ordea, komeriak.

Oinek milaka kilometro egin behar izaten dituzte –pertsona batek 178.000 kilometro egiten omen ditu oinez bizitzan– gorputzaren zama euren gainean hartuta, eta hori gutxi balitz, oinei zigorra ematen diegu zapata desegokiak erabiltzeagatik. Zapata txikiegiak, estuak, takoi altuegiak...

Arreta gutxi jartzen dugu oinetan, haiek zaintzerakoan nahiz oinetakoak aukeratzekoan, eta honek guztiak gerora ondorioak ekar ditzake; eta ez bakarrik oinetan, baita orkatilan, belaunean edota bizkarrezurrean ere. Zapatak begiek aukeratzen dituztela esan ohi dute mediku eta podologo askok, eta ez oinek, behar lukeen bezala.

Hona hemen oinetakoak erosterakoan kontuan hartzeko aholkuak:

- Neurria aukeratzekoan, kontuan izan oinaren tamaina alda daitekeela urteek aurrera egin ahala.
- Etxe batetik bestera tamaina aldatu egin ohi da zenbakia bera izan arren.
- Bi oinetan probatu. Tamaina ezberdinekoak –oin bat bestea baino handiagoa– izan ohi dira.




***Hamar heldutatik zazpik
arazoren bat dute oinetan,
eta horietatik %80
emakumeak dira***

- Estutuz gero, hobe ez erostea. Ez pentsatu “eman egingo dute”.
- Orpoa nahiz aurrealdea ongi egokitu behar zaio oinari. Zapataren oinarriak oinaren zabalera eta luzera izan behar du.
- Behatzak erraz mugitu behar dira. Behatz luzeenetik zapataren puntara zentimetro bat baino zertxobait gehiago egon behar da.
- Takoidun zapatak erosterakoan, ez erosi lau zentimetro baino gehiago duten takoiak. Bi eta lau zentimetro arteko tamaina da egokiena.

*Olatz Eloseg
Zabalik, 135 zenbakia. Moldatua*

Pertsona: arropa eta oinetakoak

Artikulua irakurri ondoren, markatu zein zapata motak ekar dezakeen osasun arazorik.



20.

Jarduera

Tailarik txikiena nahi dut!



Irakurmena


Askotan modari buruz hitz egiten denean, anorexia gaixotasuna hitzetik hortzera errepikatzen den gaia izaten da.

Irakurri artikulu hau

Modeloen erdiek anorexia sintomak dituzte

Austriako Innsbruck Unibertsitateak egin berri duen ikerketaren arabera, egungo modeloen erdiek anorexia sintomak dituzte. Ondorio horietara iristeko 50 modelo elkarrizketatu dituzte. Ikerketaren arduradunen esanetan, modeloen pisua jaisten ari da eta gainerako jendearena baino %25 baxuagoa da. Osasun Munduko Erakundearen iritziz, Mendebaldeko emakumeen %75ek beren burua den baino lodiago ikusten dute. Txostena Bostongo ospitale batek 548 emakumerekin egin duen beste azterketa batekin osatzen da. Bertako parte-hartzaileen %69k onartu zuen duten gorputz perfektuaren ideian modeloek eragin handia dutela, eta ia erdiek esan zuten irudi horien antza izateko argaldu nahi zuela.

Aizu, 272 zenbakia



Artikuluaren arabera,

– Mendebaldeko emakumeen ehuneko zenbatek ikusten dute bere burua den baino lodiago?

– Bostongo 548 emakumeetatik ehuneko zenbatek onartu du modeloen antzeko gorputza izan nahi duela?

21.

Jarduera

Anorexiari buruz mintzo



Mintzamina



1. Zuk anorexia kasurik ezagutzen duzu?



3. Inork errua izatekotan, zeinek izango luke?



3. Artikuluan esaten da emakume askok telebistako modeloen gorputza izan nahi dutela. Zergatik?



4. Telebistak norainoko errua du anorexia gaixotasunean?



5. Gurasoak, lagunak erraz kontura daitezke pertsona batek anorexia duela?

6. Zein da anorexiak duen sendabidea?

Arian, arian edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat. **Zer ikasi duzu ikasgai honetan?**

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hiru-naka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak